

artikulu nabarmenak
artículos destacados



Urtarrila



> **Rennó, Raquel. Aprender en las fronteras (o nadie educa a nadie): relaciones entre arte, ciencia y tecnología**

Kurrikulumean diziplinak bereizteak lan-eredu fordista islatzen du, kapitalismoak berezkoak dituen dominazio-harremanak bereizten, espezializatzen eta ezartzen dituena. Ezagutza zatikatzeak kontrola errazten du, eta, pentsamendu kritikotik baino, gaitasun instrumentaletik gertuago dagoen ezagutzaren kontzepturako bidea urratzen du. Egungo sistema ekonomikoa krisialdian (edo gainbehera) egonik, moneta eta ekoizpen- nahiz banaketa-eredu berriak proposatzen dira. Irakaskuntzan ere ikaskuntza- eta ikerketa-modu alternatiboak azaleratzen ari dira, eskola-sistema tradizionalaren baitan zein kanpoan.

Artikulu honetan gazteen kolektiboetan egun proposatzen ari diren lan-eredu batzuk aztertzen dira, humanitateen eta zientzia zehatzen arteko aurkaritza ez ezik, ezagutzaren beraren eraikuntzaren egitura ere eztabaidatzen dutenak, metodologia hibridoen eta are erradikalen bitartez.


- [Revista de Estudios de Juventud](#), 102. zk., 2013ko iraila, 83-97. orr.



> **García Vaz Fabiola, Berástegui Pedro-Viejo Ana. Discapacidad intelectual y universidad: una apuesta por la integración**

Comillaseko Unibertsitate Pontifizioaren DEMOS heziketa-programen bidez ezgaitasun intelektuala dutenei ematen zaien enplegurako prestakuntza klan-merkatuan sartzeko gaitasunak barneratzea erraztu ez ezik, prestakuntza integrala ere bultzatzen du eta ikasleei bizitzaren alderdi guztietan garatzeko tresnak eskaintzen

- [Revista Padres y Maestros](#), zk., 2013ko abendua, 11-15. orr.



> **Blanco Ismael. De la experimentación participativa a la radicalidad democrática. Crisis, movimientos sociales y participación ciudadana en el ámbito social**

Bizi dugun krisialdia ez da ekonomiarena edo finantzera bakarrik; politikoa ere bada. Horren erakusgarri, herritarrek erakundeei eta eragile politiko nagusiei begira sentitzen duten urruntasuna edo demokraziaren berrikusketa sakona eskatzen duten gizarte-mugimenduak azaleratzea.

Testuinguru honetan, Espainian toki-mailan herritarrek parte hartzeko erabiltzen ari diren mekanismoek izan dezaketen balioan oinarritzen da artikulu hau. Mekanismo horiei ematen zaien erabilerari buruzko balantzea egin eta gero, zera ondorioztatzen da: testuinguru horretan balio esanguratsua izango dutela, baldin erroka sakon jakin batzuei aurre egiten badiete.

- [Documentación Social](#): revista de estudios sociales y de sociología aplicada, 168 zk., 2013, 168-178. orr.